

10

Oinarri likidagarria

- 10.1 Zer da oinarri likidagarria?
- 10.2 Oinarri likidagarri orokorra
 - 10.2.1 Zein murrizpen sartzen da oinarri likidagarri orokorrean?
 - 10.2.2 Oinarri likidagarri orokor negatiboen konpentsazioak
- 10.3 Aurrezpenaren oinarri likidagarria

10.1 Zer da oinarri likidagarria?

Legez jasotako murrizpenak oinarri ezargarriari aplikatuz lortzen den emaitza da oinarri likidagarria. Beraz, kenketa honen emaitza da:

Oinarri likidagarria = oinarri ezargarria – murrizpenak

Hortaz, murrizpenik ez badago, oinarri likidagarria eta oinarri ezargarria berdinak izango dira.

Oinarri likidagarriaren motak

Oinarri likidagarrian bi oinarri mota bereizten dira:

- Oinarri likidagarri orokorra
- Aurrezpenaren oinarri likidagarria

10.2 Oinarri likidagarri orokorra

10.2.1 Zein murrizpen sartzen da oinarri likidagarri orokorrean?

Ondoko hiru murrizpenak sartzen dira oinarri likidagarri orokorrean:

- Murrizpena pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenuak ordaintzeagatik.
- Murrizpena mutualitateetan, aurreikuspen plan aseguratuetan, pentsio planetan, Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio fondoen jarduerari eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planetan, enpresen gizarte aurreikuspeneko planetan, mendekotasun aseguruuetan eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetan (BGAEetan) egindako ekarpenengatik.
- Murrizpena baterako aitorpena egiteagatik.

ERNE: hiru murrizpen horiek oinarri ezargarri orokorretik kenduko dira. Aipatu diren hurrenkeran egingo dira murrizpenak. Murrizpen horiek egiteak ezin du ekarri oinarri likidagarri orokorra negatiboa izatea, ezta oinarri hori gehitzea ere.

10.2.1.1 Murrizpena pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenua ordaintzeagatik.

Zergadunak ordainketa hauen zenbatekoa kendu dezake oinarri ezargarri orokorretik:

- Ezkontidearen alde edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote lagunaren alde epailearen aginduz ordaindutako pentsio konpentsagarriak.
- **Epailearen aginduz ere** urteko mantenerako **ordaindutako zenbatekoak**. Hala ere, kanpoan geratzen dira zergadunak seme-alabei ordaindutakoak.

10.2.1.2 Murrizpena mutualitateetan, aurreikuspen plan aseguratuetan, pentsio planetan, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planetan, enpresen gizarte aurreikuspeneko planetan, mendekotasun aseguruuetan eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetan egindako ekarpenengatik.

Atal honen barruan, aurrezki eta aurreikuspena bildutako kopuruak muga eta baldintza jakin batzuetan murrizteko aukera ematen duten murrizpen batzuk jaso dira.

GARRANTZITSUA: jarraian aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak eta kontribuzioak ezin-goz dira oinarri ezargarritik murriztu, bazkide, partaide, mutua-lista edo aseguratuek 67 urte bete ondorengo zergaldia behin hasita eginak badira.

Hona hemen murrizpenak:

1. *Murrizpena gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin, aurreikuspen plan aseguratuekin, pentsio planetan, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planetan, enpresen gizarte aurreikuspeneko planetan, eta mendekotasun aseguruuekin egindako aseguru kontratuengatik.*

a) Aseguru kontratuak gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin

Zergadunak gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru kontratuengatik ordaindu dituen kopuruak murriztu ahal izango dira, baldin eta zergaduna hauetako bat bada:

- Gizarte segurantzaren erregimenetako batean sartuta ez dagoen profesionala, bere ezkontidea, izatezko bikote-laguna, lehen mailako ahaide odolokideak, eta mutualitate horietako langileak, baldin eta kopuru hori murriztu ez badute jarduera profesionalaren etekin garbiak kalkulatzeko.
- Gizarte Segurantzaren edozein erregimenetan sartuta dagoen banakako profesionala edo enpresaria, bere ezkontidea, izatezko bikote-laguna, lehen mailako ahaide odolokideak, eta mutualitate horietako langileak.

ERNE: aurreko bi kausetan, Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak⁸³ 8.6 artikuluan jasotako kontingentziak estali behar dituzte aseguru kontratuak.

- Besteren konturako langilea edo bazkide langilea. Kasu honetan, besteren konturako langileek edo bazkide langileek ordaindutako kopuruak murriztuko dira, barne sartuta haiei lan pertsonalaren etekin gisa egotzi zaizkien sustatzailearen kontribuzioak, baldin eta Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak⁸⁴ lehendabiziko xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera egiten badira eta aipatu langileentzako langabezi saria sartu bada.

b) Aurreikuspen plan aseguratuek.

Aurreikuspen plan aseguratuetan ordaindutako primak murriztu ahal izango dira.

Aseguratutako aurreikuspen planak aseguru kontratuak dira berez, ondoko baldintzak bete behar dituztenak:

- Hartzaila, aseguratua eta onuraduna zergaduna izatea. Dena den, heriotza kasuan, prestazioak jasotzeko esku-bidea sor dezake Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak⁸⁵ ezarritakoaren arabera.
- Bakarrik estaliko dira Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak⁸⁶ 8.6 artikuluan jasotako kontingentziak (erretiroa, lan ezintasuna, heriotza eta mendekotasuna), eta estaldura nagusia erretiroa izango da. Aseguru kontratu batek estaldura nagusia erretiroa izateko beharkizuna betetzen duela ulertuko da baldintza hau egiaztatzen denean: urte bakoitzaren amaieran lortutako erretiro eta mendekotasunerako hornikuntza

⁸³ Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

⁸⁴ Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

⁸⁵ Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

⁸⁶ Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

matematikoaren balioa gutxienez izatea heriotza edo elbarritasun kapitalerako planaren hasieratik ordaindutako primen baturaren hirukoitza.

- Diru kopuruak aurrerapenez, osorik edo zati batean bakarrik erabil daitezke Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak⁸⁷ 8.8 artikuluan jasotako kasuetan: gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia.
- Aseguru kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak 97. eta 99. artikuluetan xedatutako ez da kontratu hauetan aplikatuko. Aseguratzailerak ezin dio eman hartzaileari prestazio aseguratuaen aurrerakinik, eta azken horrek ezin du poliza laga edo bahitu.
- Interes bermea eman behar du, eta teknika aktuarialak erabili behar ditu.
- Polizaren baldintzetan espresuki eta nabarmen utzi beharko da agerian aseguratutako aurreikuspen plan bat dela.
- Arauz ezarrita daude hornikuntza matematikoa beste aurreikuspen plan aseguratuta batera aldatzeko beharrik ezak eta baldintzak.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hori garatzeko arauetan erregulatuta ez dauden alderdietan, kontratu horien ekarpen, kontingentzia eta prestazioen erregimena pentsio planen araudiari lotuta egongo da, salbu hornikuntza teknikoaren alderdi finantzario eta aktuarietan. Partikulariki, aurreikuspen plan aseguratuta batean jasotako eskubideak ezin izango dira enbargatu, ez eta epailearen edo Administrazioaren trabarik jaso ere, harik eta prestaziorako eskubidea sortu arte edo gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia gertatu arte.

Alderantzizko hipoteka bat eratzearen ondorioz onuradunak lor ditzakeen aldezkatuak diru erabilpenak aurreikuspen plan aseguratuta bat kontratatzea zuzendu daitezke, osorik edo zati batean, letra honetan apartatuan jasotako modu eta baldintzetan. Aipatutako hipoteka abenduaren 7ko 41/2007 Legearen lehen xedapen gehigarriak arautu zuen (Lege horrek aldatetako sartu zituen hipoteken merkaturaren erregulazioaren duen martxoaren 25eko 2/1981 Legearen eta sistema hipotekario eta finantzarioari buruzko beste arau batzuetan, alderantzizko hipotekak eta mendeotasun aseguruak arautu zituen, eta zerga alorreko zenbait arau ezarri ere bai). Ondorio horietarako, hartzailearen biziraupeko egoera erretiro kontingentziarekin parekatzen da, behin hamar urte igarota aurreikuspen plan aseguratuta horren lehen prima ordaintzen denetik aurrera.

Aurreikuspen plan aseguratuaen hornikuntza matematikoa ezin izango da mobilizatu gizarte aurreikuspeneko beste tresna batera eta, gainera, ezin izango dira plan hartara mobilizatu gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuetako eskubide kontsolidatuak edo hornikuntza matematikoak.

c) Pentsio planak eta Europako Parlamentuaren eta bertako Kontseiluaren 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planak.

- Pentsio planen partaideek egindako ekarpenak murriztu ahal izango dira, bai eta sustatzaileak egin eta partaideei lanaren etekin gisa egotzi zaizkien kontribuzioak ere.
- Partaideek eskubidea izango dute Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio fondoen jarduerari eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planei egindako ekarpenak murrizteko, enpresa

sustatzaileek egindako kontribuzioak barne, betiere beharrik ez diren betetzen badira:

- a) Kontribuzioak prestazioa lotzen zaion partaideari egoztea zergen ondorioetarako.
- b) Geroko prestazioa jasotzeko eskubidea atzera egiteko aukerarik gabe eskualdatzea partaideari.
- c) Kontribuzio horri dagozkion baliabideen titularitatea partaideari eskualdatzea.
- d) Estali behar diren kontingentziak azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzekoak, 8.6 artikuluan jasotakoak izango dira.

d) Enpresen gizarte aurreikuspeneko planak

Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuari buruzkoak, lehen xedapen gehigarrian arautzen dituen enpresen gizarte aurreikuspeneko planei langileek egin dituzten ekarpenak, hartzailearen kontribuzioak barne. Enpresen gizarte aurreikuspeneko planek baldintza hauek bete behar dituzte beti:

- a) Aseguru kontratu mota honi aplikatuko zaizkio bazterkeria ezaren printzipioa, kapitalizazio printzipioa, ekarpenen atzeraezintasunaren printzipioa eta eskubideak esleitzeko printzipioa, horiek guztiak azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuari buruzkoak, 5. artikuluan 1. zebakian jasotzen dituenak.
- b) Polizan zehaztuta agertuko da zein prima ordaindu beharko duen hartzaileak gizarte aurreikuspeneko plana betetze aldera. Aseguratuari egotziko zaizkie primak.
- c) Polizaren baldintzetan espresuki eta nabarmen utzi beharko da agerian enpresaren gizarte aurreikuspeneko plana dela.
- d) Arauz ezarriko dira hornikuntza matematikoa enpresaren beste gizarte aurreikuspeneko plan batera aldatzeko beharrik ezak eta baldintzak.
- e) Gainera, enpresen gizarte aurreikuspeneko planek baldintza hauek bete behar dituzte:
 - Estali behar diren kontingentziak Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁸⁸ 8.6 artikuluan jasotakoak izango dira bakarrik (erretiroa, lanerako ezintasuna, heriotza eta mendeotasuna), eta erretiroa estaliko dute nagusiki. Ulertuko da aseguru kontratu batek estaldura nagusia erretiroa duela baldintza hau egiaztatzen denean: urte bakoitzaren amaieran lortutako erretiro eta mendeotasunerako hornikuntza matematikoaren balioa gutxienez izatea heriotza edo elbarritasun kapitalerako planaren hasieratik ordaindutako primen baturaren hirukoitza.
 - Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁸⁹ 8.8 artikuluan aipatzen dituen kasuetan baino ez da baimenduko diru kopuruak aurrerapenez erabiltzea, dela osorik dela zati batean (gaixotasun larria dagoenean edo iraupen luzeko langabezia denean).
 - Kontratu hauetan ez da aplikatuko aseguru kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak 97. eta 99. artikuluan xedatutakoak. Aseguratzailerak ezin dio eman hartzaileari prestazio aseguratuaen aurrerakinik, eta azken horrek ezin du poliza laga edo bahitu.

⁸⁷ Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

⁸⁸ Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

⁸⁹ Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Interes bat bermatu behar dute, eta teknika aktuarialak erabili.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru arauan eta berau garatzeko arauetan berriaz erregulatuta ez dauden alderdietan, kontratu horien ekarpen, kontingentzia eta prestazioen araubidea pentsio planen araudiari lotuta egongo da, salbu hornikuntza teknikoen alderdi finantzario eta aktuarietan. Partikulariki, enpresen gizarte aurreikuspeneko plan batean jasotako eskubideak ezin izango dira bahitu, ez eta epailearen edo Administrazioaren trabarik jaso ere, harik eta prestaziorako eskubidea sortu arte edo gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia gertatu arte.

e) Mendekotasun aseguruak

Bakarrik mendekotasun ertain edo handirako arriskua estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak, Autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko Legeak jasotakoaren arabera.

Era berean, zergadunarekin ahaidetasun harreman bat duten pertsonak, zuzeneko edo zeharkakoa izan, hirugarren mailaraino, hori barne, eta haren ezkontideak, izatezko bikote-lagunak, edo zergaduna tutoretzapean edo harrera erregimenean beren kargura duten pertsonak, eskubidea izango dute aseguru pribatu horiei ordaindutako primak beren oinarri ezargarri orokortetik murrizteko, ondorengo hirugarren puntuan aipatzen den murrizpen muga kontuan hartuta.

Zergadun berberaren alde primak ordaintzen dituzten pertsonak (zergadunarenak barne) guztira egindako murrizpenak ezin dira izan urtean 5.000,00 eurokoak baino handiagoak.

Horretarako, zergadun berbearen alde prima bat baino gehiago ordaindu denean, zergadunak berak ordaindutako primak murriztu behar dira eta, bakarrik 5.000,00 euroko mugara iristen ez badira, beste pertsona batzuek haren alde ordaindutako primak murriztu daitezke horien oinarri ezargarri orokorrean. Azken kasu horretan, proportzionalki egingo da murrizpena.

Prima horiek ez daude lotuta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari.

Aseguru kontratuak baldintza hauek bete behar ditu beti:

- Hartzailea, aseguratu eta onuraduna izatea zergaduna. Dena den, heriotza kasuan, prestazioak jasotzeko eskubidea eman dezake, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁹⁰ xedatutakoaren arabera.
- Interes bat bermatu behar dute, eta teknika aktuarialak erabili.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru arauan eta berau garatzeko arauetan berriaz erregulatuta ez dauden alderdietan, kontratu horien ekarpen, kontingentzia eta prestazioen araubidea pentsio planen araudiari lotuta egongo da, salbu hornikuntza teknikoen alderdi finantzario eta aktuarietan. Partikulariki, mendekotasun aseguru batean jasotako eskubideak ezin izango dira bahitu, ez eta epailearen edo Administrazioaren trabarik jaso ere, harik eta prestaziorako eskubidea sortu arte edo gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia gertatu arte.

f) Kirolari profesionalak eta goi mailakoak, izaera hori legez aitortua edukita, ekarpenak egin badizkiote kirolari profesionalen mutualitateari (prima finkoko gizarte aurreikuspeneko mutualitateari), aipatzen den tratamendu tributarioa izango dute.

Aipatutako kirolariak beren lan bizitza behin amaituta edo izaera hori behin balduta Mutualitateari egindako ekarpenak murriztu ahal izango dira pentsio planen legean aurreikusita dauden egoerak estaltzeko direnean.

g) Urteko gehieneko ekarpen finantzarioak gizarte aurreikuspeneko mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruak.

Atal honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemei **urtean** egindako ekarpenak, oinarri ezargarria murrizteko eskubidea eman dezaketanak, gehienez **10.000,00 eurokoak** dira guztira, sustatzaileek egotzitako kopuruak barne (sistema horiek dira gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, aurreikuspen plan aseguruak, pentsio planak, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruak). Hala ere, zergadunak **50 urtetik gorakoak** direnean, **12.500,00 eurokoa** izango da muga hori⁹¹.

Dena den, ekarpenari ezartzen zaion gehieneko zenbateko horrek oinarri ezargarriaren murrizpenaren muga fiskala errespetatu behar du hurrengo 3.a) puntuan aipatzen den bezala.

h) Eskubide kontsolidatuak eta prestazioak

Mutualisten eskubide kontsolidatuak bakarrik gauzatu ahal izango dira Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak 8.8 artikuluan pentsio planei dagokien jasotako kasuetan⁹², hau da, iraupen luzeko langabezia edo gaixotasun larria dagoenean.

Atal honetan jasotako gizarte aurreikuspeneko sistemetatik jasotako **prestazioak** (gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, aurreikuspen plan aseguruak, pentsio planak, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planak, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruak) osorik zergapetuko dira, eta inoiz ere ezin izango zaie gutxitu aurrez murriztu ezin izan diren ekarpen eta kontribuzioen soberakina.

Zergadunak osorik edo zati batean erabiltzen baditu 1. puntu honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemetatik eratorritako eskubide kontsolidatuak eta eskubide ekonomikoak pentsio plan edo fondoen araudian jasota ez dauden kasuetan, borondatezko edo nahitaezko baja kasuetan edo entitatearen desegite edo likidazio kasuetan, behartuta egongo da behar ez bezala egindako murrizketak oinarri ezargarri orokorrean berrezartzera bidezko diren autolikidazio osagarriak eginez eta berandutza interesak sartuz (sistema horiek dira gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, aurreikuspen plan aseguruak, pentsio planak, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planak, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruak). Ekarpenei zenbatekoa gaituta jaso diren kopuruak, sustatzaileek egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatuak dute horiek jasotzen diren zergaldian.

Gizarte aurreikuspeneko sistemetan kontsolidatutako eskubideak aurrerapenez erabiltzeagatik oinarri ezargarriaren oker egin diren murrizpenak berrezartzeko, autolikidazio osagarriak aurkeztuko dira. Horiek aurkezteko epea eskubide horiek aurrerapenez erabili diren egunean hasi eta erabilpen aurreratua egin den zergaldiko autolikidazioa egiteko azken egunean amaituko da.

2. Murrizpena borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitatei emandako kopuruengatik

Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako bazkideek egindako ekarpenak murriztu ahal izango dira, betiere Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen erregimen fiskalari buruzko uztailaren 15eko 7/1988 Foru Arauak 3. artikuluan jasotzen dituen gorabeherak nahiz bazkide langileen langabezia estaltzeko direnean, bai eta bazkide babesleek egin eta entitateetako bazkideei lanaren etekin gisa egotzi zaizkien kontribuzioak ere.

⁹¹ Azaroaren 28ko 35/2006 Legearen hamaseigarren xedapen gehigarria.

⁹² Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

⁹⁰ Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

GARRANTZITSUA: jarraian aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak eta kontribuzioak ezin go dira oinarri ezargarritik murriztu, bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek 67 urte bete ondorengo zergaldia behin hasita eginak badira.

Gizarte aurreikuspen sistema honetatik jasotako prestazioak beren osoan zergapetuko dira, eta murrizpenik izan ez duten gehiegizko ekarpen eta kontribuzioen zenbatekoak ezin go zaizkie inoiz gutxitu.

Zergadunak osorik edo zati batean erabiltzen baditu borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetatik eratorritako eskubide ekonomikoak borondatezko edo nahitaezko baja kasuetan edo entitatearen desegite edo likidazio kasuetan, behartuta egongo da behar ez bezala egindako murrizketak oinarri ezargarri orokorrean berrezartzera bidezko diren autolikidazio osagarriak egin ez eta berandutza interesak sartuz. Ekarpeneen zenbatekoa gaindituta jaso diren kopuruek, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatu dute horiek jasotzen diren zergaldian.

Gizarte aurreikuspeneko entitateetatik eratorritako eskubideak aurrerapenez erabiltzeagatik oinarri ezargarrian oker egin diren murrizpenak berrezartzeko, autolikidazio osagarriak aurkeztuko dira. Horiek aurkezteko epea eskubide horiek aurrerapenez erabili diren egunean hasi eta erabilpen aurreratua egin den zergaldiko autolikidazioa egiteko azken egunean amaituko da.

3. *Zenbaterainoko murrizpenak aplika daitezke mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei, mendekotasun aseguruiei, eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei ekarpenak egiteagatik?*

Berariazko araudian jasotako muga finantzarioak eragotzi gabe, muga hauek izango dituzte gizarte aurreikuspeneko sistemen aldeko ekarpen eta kontribuzioengatik egiten diren murrizpenek:

a) 5.000 euro urtean, EKARPEN HAUEK batuta: bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/CE Zuzentarauan erregulatutako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei, mendetasun aseguruiei, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei eta kirolari profesionalen mutualitateei egindakoak.

Mendetasun aseguru pribatuei hirugarren pertsonen alde ordaindutako primak muga horren barruan konputatuko dira.

b) 12.000 euro urtean, EKARPEN eta KONTRIBUZIO HAUEK batuta: mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/CE Zuzentarauan erregulatutako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei, mendetasun aseguruiei, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei eta kirolari profesionalen mutualitateei egindakoak.

ERNE: Zergaldian ekarpenak eta kontribuzioak egin badira, aurrenik kontribuzioak murriztuko dira eta, gero, ekarpenak, hala badagokio.

Murrizpen mugak aplikatzeari begira, jardueraren titularrak (banakako enpresariak) egindako ekarpen propioak kontribuzio gisa tratatuko dira honako hauek direnean:

- Enpleguko pentsio planei eta 2003/41CE Zuzentarauan erregulatutako pentsio planei egindakoak, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindakoak, eta enpresen gizarte aurreikuspeneko planei egindakoak, baldin eta jardueraren titularra, aldi berean, babeslea eta partaide edo mutualista, edo hartzailea eta aseguratua bada.

- BGAEei –enplegu arlokoei eta lehenatasunekoiei– egindakoak, baldin eta jardueraren titularra, aldi berean, bazkide babeslea eta onuraduna bada.

Nola aplikatzen dira aurreko mugak?

Aurreko mugak banaka eta independenteki aplikatuko zaizkio familia unitatean sartutako mutualista, aseguratua, partaide edo bazkide bakoitzari.

SOBERAKINAK- Zer gertatzen da ekarpenak mugak gainditzen baditu?

Bi motatako soberakinak izango dira:

- MURRIZPENAREN GEHIENEN MUGAK GAINDITZEAGATIK GERTATUTAKO SOBERAKINA: **BGAEei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/CE Zuzentarauan erregulatutako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei, mendetasun aseguruiei eta kirolari profesionalen mutualitateari** EKARPENAK egin dizkieten partaide, mutualista edo aseguratuek hurrengo bost ekitaldietan murriztu ditzakete oinarri ezargarri orokorrean murriztu gabe geratutako kopuruak, baldin eta horiek murrizten diren ekitaldian ZERGADUNEK 68 URTE EDO GEHIAGO BETE EZ BADITUZTE.

Berdin jokatuko da, baldintza berdina beteta, murrizpenaren gehieneko mugak KONTRIBUZIOETAN gainditzen direnean.

- OINARRI EZARGARRIA NAHIKOA EZ IZATEAGATIK GERTATUTAKO SOBERAKINA: **BGAEei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/CE Zuzentarauan erregulatutako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei, mendetasun aseguruiei eta kirolari profesionalen mutualitateari** egindako ekarpen edo kontribuzioak ezin izan badira oinarri ezargarri orokorrean murriztu oinarri hori nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira, ZERGADUNAREN ADINA EDOZEIN DELA ERE.

ERNE: Murrizpen horiek gorago adierazitako mugen barruan egongo dira. Eta ekitaldiko ekarpen edo kontribuzioekin batera aurreko urteetako soberakinak ageri badira, aurrenik soberakinak murriztuko dira.

Pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenuak oinarri ezargarri orokorretik murriztuta emaitza positiboa ateratzen den lehen ekitaldian murriztuko dira soberakinak, hurrengo bost ekitaldien barruan. Ondorio horietarako, soberakinak antzinasunaren arabera murriztuko dira, hau da, zaharrenak murriztuko dira lehenik. Zergaldiko ekarpenak eta kontribuzioak azken tokian murriztuko dira.

Hurrenkera kronologiko horretan, murrizpen horretan kontribuzioen soberakinak lehenatasuna izango du ekarpenen soberakinaren gainetik.

Erregela horiek ez zaizkie aplikatuko produktu bakoitzaren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpen eta kontribuzioei. 2012ko ekitaldirako, apartatu honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako **ekarpen eta kontribuzioen gehieneko muga 10.000,00 eurokoa da urtean** (sistema horiek dira gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, aurreikuspen plan aseguratuek, pentsio planak, 2003/41/CE Zuzentarauan araututako pentsio planak, enpresen gizarte aurreikuspeneko planak eta mendetasun aseguruak). Hala ere, **50 urtetik gorako zergadunen kasuan**, zenbateko hori **12.500,00 eurokoa** izango da.

b) Zenbaterainoko murrizpenak egin daitezke pertsona desgaituen alde egindako ekarpenengatik?

Bi muga berezi ezarri dira aurreko apartatueta aipatutako gizarte aurreikuspeneko entitateei egiten zaizkien ekarpenetarako, pertsona desgaituen alde egindakoak direnean.

Muga berezi horiek bi kasu hauetan aplikatzen dira:

- Ekarpina pertsona desgaituak berak egiten badu, oinarri ezargarri orokorrean murrizpena egiteko gehieneko muga 12.000,00 eurokoa da.
- Ekarpina beste pertsona batek egiten badu, pertsona horrek desgaituaren alde egindako ekarpenengatik gehienez egin daitekeen murrizpena 8.000,00 eurokoa da. Ezinbestekoa da pertsona desgaituarekin ahaidetasun harreman bat izatea edo tutoretzapean hartuta edukitzea. Halere, murrizpen hori ez dago lotuta pertsona horrek izaera orokorrean, eta adierazitako mugen barruan, gizarte aurreikuspeneko sistemetan egin dezakeenarekin.

Zer ekarpenengatik egin daitezke murrizpena, pertsona desgaituak berak egindakoak eta beste pertsona batek desgaituaren alde egindakoak batera agertzen direnean?

Lehendabizi, pertsona desgaituak berak egindako ekarpenak murriztuko dira. Eta pertsona desgaituarenak 24.250,00 euroko muga horretara iristen ez direnean bakarrik murriztuko dira beste pertsona batzuek desgaituaren alde egindako ekarpenak, aipatu mugara iritsi arte. Pertsona horiek beren oinarri ezargarri orokorrean egingo dute murrizpena.

Pertsona desgaituaren alde egindako ekarpenen murrizpen horiek egin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- Pertsona desgaituak %65eko edo hortik gorako minusbaliotasun fisiko edo zentzumenezkoa izan behar du, %33eko minusbaliotasun psikikoa edo handiagoa eduki, edota judizialki aitortutako ezgaitasun bat izan Kode Zibilean jasotako kausak direla medio, maila edozein dela ere.
- Pertsona desgaituaren aldeko ekarpina egiten duenak zuzeneko edo zeharkako ahaide bat izan behar du, hirugarren mailaraino, hori barne, edo, bestela, ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturakotako izateko bikote-laguna, edota tutoretzapean edo harrera erregimenean beren kargupean hartu dutenak.
- Onuradun bakarra pertsona desgaitua izango da, modu ezeztazinean eta edozein kontingentzian.

Dena den, pertsona desgaituaren heriotzak eskubidea sor dezake alarguntasun edo zurtasun prestazioak jasotzeko, haren alde ekarpenak egin dituztenentzat, ekarpen horien proportzioan.

Egindako ekarpenak ezin izan badira murriztu kuota nahikoa ez izateagatik edo pertsona desgaituen alde urtean egindako ekarpenetarako ezarritako gehieneko mugak gainditzeagatik, ondorengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira.

Erregela hori ez zaie aplikatuko beren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpenei.

Puntu honetan aipatzen diren ekarpenak ez daude lotuta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari.

Prestazioak jasotzen badira edo eskubide kontsolidatu edo ekonomikoak modu aurreratuan erabiltzen badira pertsona desgaituen alde eraturakotako gizarte aurreikuspeneko sistemen araudian jasota ez dauden kasuetan, borondatezko edo ezinbesteko baja kasuetan, edota entitatearen desegite eta likidazio kasuetan, zergadunak berrezarri egin beharko ditu oinarri ezargarri orokorrean oker egin dituen murrizpenak, autolikidazio osagarriak eginez eta berandutza interesak sartuz. Ekarpenen zenbatekoa gaindituta jaso diren kopuruek, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatu dute horiek jasotzen diren zergaldian.

Esan bezala, gizarte aurreikuspeneko sistemetan kontsolidatutako eskubideak aurrerapenez erabiltzeagatik oinarri ezargarrian oker egin diren murrizpenak berrezartzeko, autolikidazio osagarriak aurkeztu behar dira, eta horiek aurkezteko epea eskubide horiek aurrerapenez erabili diren egunean hasi eta erabilpen aurreratua egin den zergaldiko autolikidazioa egiteko azken egunean amaituko da.

c) Zer gertatzen da kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari egindako ekarpenekin?

Kirolari profesionalak eta goi mailakoek, izaera hori legez aitortua edukita, ekarpenak egin badizkiote kirolari profesionalen mutualitateari (prima finkoko gizarte aurreikuspeneko mutualitateari), ondorengo hirugarren paragrafoan aipatzen den tratamendu tributarioa izango dute.

Zerga erregimena aplikatu ahal izateko, nahitaez bete behar dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen Legeak⁹³, Sozietateen gaineko zergaren, zergadun ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako beharkizun, ezaugarri eta baldintzak.

Kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari (prima finkoko gizarte aurreikuspeneko mutualitateari) egindako ekarpenek eta horretatik eratorritako prestazioek zerga araubide hau izango dute:

- a) Ekarpenak, zuzenekoak nahiz egotziak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako oinarri ezargarri orokorra murriztu ahal izango dute, muga honekin: etekin osoa gastu kengarrien zenbatekoaz murriztuta gelditzen diren lan etekinak gehi ekitaldian jarduera ekonomikoe-tatik banaka lortutako etekin garbierren zenbatekoa, 24.250 euroraino gehienez ere.
- b) Oinarri ezargarri orokorra nahikoa ez izateagatik edo 24.250 euroko muga aplikatzeagatik murriztu ezin izan diren ekarpenak ondorengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira. Ekarpenei ez zaie erregela hau aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen Legeak, sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaten legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuko 2. zerbakian jasotako muga gainditzen dutenean.
- c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen Legeak⁹⁴, sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaten legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuko 4. zerbakian aipatu ez dituen kasuetan eskubide kontsolidatuak erabiltzeak zergadunari ekarriko dio behar ez bezala egindako murrizketak oinarri ezargarri orokorrean berrezartzeko betebeharra. Horretarako, autolikidazio osagarriak egin beharko ditu, berandutza interesak ere sartuta. Ekarpenen zenbatekoa gaindituta jasotzen diren kopuruek, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatu dute horiek jasotzen diren zergaldian.

⁹³ Abenduaren 28ko 35/2006 Legea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautu eta Sozietateen gaineko zergaren, zergadun ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatzen dituena. Hamaikagarren xedapen gehigarria.

⁹⁴ Abenduaren 28ko 35/2006 Legeak honako hau dio hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuko 4. zerbakian: Mutualisten eskubide kontsolidatuak azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, 8.8 artikuluan aipatzen dituen kasuetan bakarrik gauzatu daitezke, edo bestela, behin urtebete igaro ondoren kirolari profesionalen lan jarduna amaitu edo goi mailako kirolarien izaera galtzen denetik aurrera.

Eskubide kontsolidatuak aurrerapenez erabiltzeagatik oinarri ezargarrian oker egindako murrizpenak berrezartzeko, autolikidazio osagarriak aurkeztu behar dira, eta horiek aurkezteko epea eskubide horiek aurrerapenez erabili diren egunean hasi eta erabilpen aurreratua egin den zergaldiko autolikidazioa egiteko azken egunean amaituko da.

- d) Jasotako prestazioek, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen Legeak, sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaten legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuko 4. zerbakian aipatutako kasuetan eskubide kontsolidatuak hartzeak, oso-osorik lanaren etekin gisa tributatuak dute.

Aurreko apartatuan jasotako araubidea zehazki dela ere, kirolari profesionalak eta goi mailakoek aukera izango dute kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ekarpenak egiten jarraitzeko, kirolari gisa egiten zuten lan jarduna amaitu arren edo izaera hori dagoeneko galdu arren.

Ekarpen horientzat murrizketak egin ahal izango dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarri orokorrean, Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuak (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 8.6 artikuluan jasotzen dituen egoerak estaltzea helburu duen zatian.

Mutualisten eskubide kontsolidatuak bakarrik gauzatu ahal izango dira azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuari buruzkoak, 8.8 artikuluan pentsio planei dagokienez jasotako kasuetan.

Ekarpen horiek murrizteko gehieneko muga gisa, 3. puntu honetako a) letran ezarritakoa aplikatuko da.

Eskubide kontsolidatuak erabiltzen badira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen Legeak, sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaten legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuko 4. zerbakian aipatutakoak ez diren kasuetan, zergaduna behartuta egongo da oker egindako murrizketak oinarri ezargarri orokorrean berrezartzera. Horretarako, autolikidazio osagarriak egin beharko ditu, berandutza interesak ere sartuta. Ekarpeneen zenbatekoa gaindituta jasotzen diren kopuruek, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatuak dute horiek jasotzen diren zergaldian.

Eskubide kontsolidatuak aurrerapenez erabiltzeagatik oinarri ezargarrian oker egindako murrizpenak berrezartzeko, autolikidazio osagarriak aurkeztu behar dira, eta horiek aurkezteko epea eskubide horiek aurrerapenez erabili diren egunean hasi eta erabilpen aurreratua egin den zergaldiko autolikidazioa egiteko azken egunean amaituko da.

4. *Murrizpena kapitulu honetan aztertutako gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik, bazkidea, partaidea, mutualista edo titularrak ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna denean.*

Zergadunaren ezkontideak edo izatezko bikote-lagunak –maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako– oinarri ezargarriaren zati orokorrean sartu beharreko errentarik lortu ez duenean edo, lortuta ere, haien urteko kopurua 8.000,00 eurotik beherakoa denean, eta, betiere, 68 urte edo gehiago bete ez baditu, zergadunak, aurreko mugen barruan egindako murrizpenez gain, posible du oinarri ezargarri orokorrean murriztea kapitulu honetan aipatu-

tako gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak, baldin eta ezkontidea edo izatezko bikote-laguna haien bazkide, partaide, mutualista edo titularrak bada. Urteko muga 2.400,00 euro da.

Ekarpen horiek ez daude lotuta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari.

Zer gertatzen da ekarpenak muga gainditzen badu?

Zergadunak ekarpenak egin badizkiete kapitulu honetan aztertutako gizarte aurreikuspeneko sistemei, eta ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna hango bazkide, partaide, mutualista edo titularrak bada, ondorengo bost ekitaldietan murriztu ditzakete oinarri ezargarria nahikoa ez izateagatik edo muga gainditzeagatik oinarri horretan murriztu ezin izan dituzten kopuruak.

2.400 euroko mugatik gorako soberakinak hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira, betiere baldin eta horiek murrizten diren ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo titularrak den ezkontideak edo izatezko bikote-lagunak 68 urte edo gehiago bete ez baditu.

Ekarpenak ezin izan badira oinarri ezargarri orokorrean murriztu hura nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira ezkontidearen edo izatezko bikote-lagunaren adina edozein dela ere.

Murrizpen horiek gorago adierazitako mugen barruan egongo dira (2.400 euro).

10.2.1.3. Murrizpena baterako aitortpena egiteagatik

Hona hemen murrizpena baterako aitortpena egiteagatik, familia unitate motaren arabera:

- Bereizi gabeko ezkontideek eta maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikote kideek nahiz ondoko hauek osatutako familia unitatea: adingabe-ko seme-alabek, gurasoekin bizi badira, edota judizialki ezgaitutako seme-alaba adindunek, luzatu edo birgaitutako gurasoen agintepean daudenean. Baterako aitortpena egiteagatik, **4.114,00** euroko murrizpena egin daiteke.
- Guraso batek eta aurreko atalean aipatutako seme-alaba guztiek osatutako familia unitatea, kontuan hartu gabe elkarrekin bizi ote diren legezko bereizketa dagoenean edo ezkontzarik edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikoterik ez dagoenean. Guztira, **3.574,00** euroko murrizpena egin daiteke.

10.2.2 Oinarri likidagarri orokor negatiboen konpentsazioa

Oinarri likidagarri orokorra negatiboa bada, haren zenbatekoa aurreko lau urteetan lortzen diren oinarri likidagarri orokor positiboekin konpentsatu ahal izango da.

Kompentsazioa ondorengo lau urteetako bakoitzean egingo da urte bakoitzeko oinarri likidagarri orokorrek aukera ematen duen gehieneko zenbatekoan. Inoiz ere ezin izango da lau urteko epea luzatu ondorengo urteetako oinarri likidagarri orokor negatiboekin metatuz.

Zergadunak agiri bidez frogatu behar du nondik datozen eta zenbatekoak diren konpentsatu nahi dituen oinarri likidagarri orokor negatiboak, horiek sortu ziren ekitaldia edozein dela ere.

10.3 Aurrezpenaren oinarri likidagarria

Aurrezpenaren oinarri likidagarria lortzeko, aurrezpenaren oinarri ezargarriari pentsio konpentsagarriengatik eta urteko mantenturako ordaintengatik egindako murrizpenaren gerakina kendu behar zaio, halakorik badago. Oinarria ezin da, kenketa horrengatik, negatiboa izan.